

ETXEKO TRATU TXAR ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA
DIREN EMAKUMEEI ESKAINTZEN ZAIEN LAGUNTZA
HOBETZEKO ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOA
EZARTZEKO NEURRIAK (2004)

Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea

Orain aurkezten diren orri hauetan adierazi dira *Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko akordioa* (2001eko urriaren 18an sinatua) eta Etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako segurtasun-plana 2002-2004 (2002ko azaroaren 22an Akordioaren Jarraipen Batzordeak onartua) ezagutzera emateko eta ezartzeko ardura duten erakundeek 2004. urtean aurrera aterako dituzten neurriak. 2004ko maiatzaren 14an onartu zuen Jarraipen Batzordeak orain aurkezten den agiri hau, eta planak barne hartzen dituen neurriak Akordioan parte hartzen duten Erakundeen arabera bereizi eta adierazi dira jarraian.

1. EUSKO JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

- 1.1. Gaiarekin erlazioan Lehendakariak egiten dituen agerpen publikoetan berariaz aipatzea emakumeen aurkako indarkeria eta Erakundeen arteko Akordioa (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 1.2. Eusko Legebiltzarrean emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko Aitorpen berri bat sustatzea —EMAKUNDEK diseinatuko duena—, aurretik onartutakoaren betetze-maila aztertu ondoren (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 1.3. Etxeko tratu txarren biktimengana zuzendutako materialak (hainbat euskarritan) lantzea eta zabaltzea, hartara, tratu txarren biktimei nola jokatu eta nora jo argitzeko eta hartu beharreko segurtasun-neurriak ezagutzera emateko (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 1.4. Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar) parte hartzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 1.5. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren diseinu, finantzaketa eta hedapenean parte hartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean konpromiso politikoa, soziala eta pertsonala indartuz (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 1.6. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen laguntzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

2. EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

- 2.1. Euskal Herriko Toki Poliziek etxeko indarkeriari eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruz ezagutzen duten informazio estatistikoa koordinatzeko, homogeneizatzeko eta sistematizatzeko araudi bat lantzea (EEEEPP ekintza: 9314; 7. kategoria).
- 2.2. Ertzaintzak ezagutzen dituen etxeko tratu txarrekin eta sexu-erasoekin erlasionatutako arau-hauste penalen biktimei buruzko estatistika Emakundera igortzea, orain artean egin den bezalaxe (EEEEPP ekintza: 9314; 7. kategoria).
- 2.3. Tratu txarren biktimari salaketaren kopia bat ematea (hala badagokio), hartara, instantzia desberdinetan deklaratu behar izatea ekiditeko (EEEEPP ekintza: 9345; 6. kategoria).
- 2.4. Euskal Herriko Polizia Ikastegian garatzen diren ikastaroetan Erakundeen arteko Akordioan barne hartutako edukiak lantzen jarraitzea (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 2.5. Euskal Herriko Polizia Ikastegiko irakasle berriei etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko prestakuntza eskaintzea, Erakundeen arteko Akordioari garrantzi berezia emango zaiolarik (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 2.6. Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen aurrean esku hartzeko prestakuntza-planari dagokionez, behar ahala prestatuko dira agenteak, Toki Poliziaren kasuan; Ertzaintzari dagokionez, bestalde, "Ertzaintzaren Birziklapen eta Etengabeko Prestakuntzarako Plana" (2000ko ekainaren 8an Kontseilu Nagusiak onartutakoa) jarriko da martxan hemendik gutxira (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 2.7. Fiskaltzarekin aldiroko bilerak egiten jarraitzea, indarkeriarekin erlasionatutako kasuistikak aztertzeke (EEEEPP ekintza: 9353; 3. kategoria).
- 2.8. Etxeko indarkeriaren biktimei eskaini beharreko arreta eta babesaren inguruan 2003. urtean abiarazitako proiektua lantzen jarraitzea; horretarako, etxeko indarkeriaren inguruan egindako kudeaketa eta ikerketak jasotzeko berariaz sortu den bitarteko informatikoa martxan jarriko da, eta egoera larrienetan bizi diren biktimen artean telefono mugikorrak banatuko dira (EEEEPP ekintza: 1132; 6. kategoria).
- 2.9. Herritarren segurtasunerako unitateetan *Etxeko tratu txarren biktimak Babesteko Agindua eraginkor izateko koordinazio-protokoloa* ezartzea (EEEEPP ekintza: 9345; 6. kategoria)
- 2.10. Segurtasun Sailburuordeak emandako 48. zk. agindua 27/2003 Legearen (uztailaren 31koa eta Babes Agindua arautzen duena) edukiekin bat etortzea (EEEEPP ekintza: 9345; 6. kategoria).

- 2.11. Etxeko indarkeria gertatzen denean jarraitu beharreko polizia-prozedura ezagutzera emateko hitzaldiak antolatzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 2.12. *Ertzaintza Gaur* aldizkariaren bitartez agente guztien artean Erakundearen arteko Akordioarekin eta etxeko tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzko polizia-jarraibideekin erlasionatutako informazioa ezagutzera ematea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 2.13. Akordioarekin erlazioan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar). (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 2.14. Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan antolatzen dituen sentsibilizazio-ekintzetan parte hartzea eta datorren azaroaren 25ean aurkeztuko den sentsibilizazio-kanpaina diseinatzen, finantzatzen eta zabaltzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 2.15. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

3. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- 3.1. Emakumezkoen eta gizonezkoen Berdintasunerako Legearen Aurreproiektuaren zirriborroan etxeko tratu txarren biktimei dagokienez etxebizitza-esparruan egindako proposamenak, etxebizitzaren araudian barne hartzea (EEEEPP ekintza: 9358; 6. kategoria).
- 3.2. Babes-etxeen antolakuntza eta funtzionamendua arautuko duten baldintzen Dekretua lantzea eta Gobernu Kontseiluan aurkeztea, onar dezan (EEEEPP ekintza: 9355; 5. kategoria).
- 3.3. Diru-laguntzak emateko orduan lehentasuna ematea genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei laguntzea eta arreta eskaintzea xede duten proiektu sozialei (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 3.4. Emakumeentzako telefono bidezko laguntza eta informazioa emateko zerbitzu bat martxan jartzeko lehiaketa publikoa deitzea (EEEEPP ekintza: 9112; 2. kategoria).
- 3.5. Tratu txarren biktimak izan diren emakumeek adierazitako beharrak eta egindako eskaerak kontuan hartuta, laguntzeko zerbitzuak sortzea, toki-administrazioekin elkarlanean (EEEEPP ekintza: 9356; 5. kategoria).
- 3.6. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko Emakundek martxan jartzen dituen kanpainen parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

- 3.7. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 3.8. Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gida bat lantzen, finantzatzen eta ezagutzera ematen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 3.9. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 3.10. Gizarte-zerbitzuen esparruan datuak biltzeko sistema bateratu bat sortzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9313; 7. kategoria)

4. EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- 4.1. *Babes Agindua eraginkor izateko jardueren protokoloen* jarraipena egitea (hiruhilekoa); aipatutako protokoloak Lurralde Historiko guztietan sinatu dira honako erakunde hauekin: Probintzia Auzitegia, Magistratuak, Epaile Dekanoak, Fiskaltza, Herrizaingo Saila, Abokatuen Elkargoak eta Prokuradoreen Elkargoak (EEEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 4.2. Etxeko tratu txarrak edo sexu-erasoak gertatzen direnean Auzitegiko Medikuntzaren esparruak zehaztutako Protokoloak behar den moduan betetzen direla ziurtatzeko hiruhileko jarraipena egitea (EEEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 4.3. Erakundeen arteko akordioaren Jarraipen Batzordearen esparruan Abokatuen Elkargoek eta Abokatutzaren Euskal Kontseiluak sinatutako akordioa ebaluatzea eta aztertzea, antzeman ahal diren urritasunak zuzentzeko eta hobekuntzak egiteko helburuarekin (EEEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 4.4. Epaiketa azkar, etxeko tratu txar eta babes-aginduen esparruan Epaileak, Idazkariak eta Fiskalak prestatzeko berariazko bi ikastaro antolatzea (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 4.5. Lurralde Historiko bakoitzean abokatuengana zuzendutako etxeko indarkeriari buruzko ikastaro bat antolatzea. Aipatutako ikastaroetan bertaratzea nahitaezkoa izango da etxeko indarkeriaren txandan izena eman duten lagun guztientzako (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 4.6. 27/2003 Legeari buruz (etxeko tratu txarrak Babesteko Agindua arautzen duena) berariazko prestakuntzako ikastaroak antolatzea Autonomia Erkidegoko udal-zerbitzuetako langile teknikoentzako (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).

- 4.7. Sailean antolatutako taldearen lana areagotzea, Akordioa martxan jartzeko planteatu diren jarduera eta hipotesi guztiak aztertzeko bitarteko gisa; horretan lan egingo dute: Biktimenganako Laguntza Zerbitzuetako (BLZ) ordezkariak, Orientazio Juridikoko Zerbitzuetako (OJZ) ordezkariak eta gainerako zerbitzu lagungarri ez-judizialak ordezkariak. Aipatutako taldea fiskaltza, Ertzaintza eta gainerako poliziaekin koordinatuko da, bai eta Akordioaren Jarraipen Batzordearekin eta Akordioa sustatzeko Erakundeen arteko Talde Teknikoarekin ere (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 4.8. Etxeko indarkeria jasaten duten biktimak Babesteko Agindua Koordinatzeko hiru Zentroei bitarteko informatikoak hornitzea, hartara, tratamendu estatistikoa ahalbidetzeaz gain, babes-aginduak dagokien Gizarte Zerbitzuetara berehala bidaltzeko (EEEEPP ekintza: 9346; 7. kategoria).
- 4.9. Biktimenganako Laguntza Zerbitzuetako funtzionamendu-metodoak hobetzea; xede horrekin, sistema informatiko berriak jarriko dira martxan, eta besteak beste prozesuak homogeneizatzeko lortuko da, txostenak lantzeko eta hitzordua emateko atzerapenak gutxituko dira, eta abar (EEEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 4.10. Biktimenganako Laguntza Zerbitzuei buruzko triptikoak eta materiala zabaltzea, hartara, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak gertatzen direnean zerbitzuek eskaintzen duten laguntza ezagutzera ematen jarraitzeko (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 4.11. Giza Eskubideen esparruko laguntzen deialdian arreta berezia eskaintzea etxeko tratu txar eta sexu-erasoei buruzko programa eta jarduerari (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 4.12. Babes Aginduak Koordinatzeko Zentroen eta Gizarte Zerbitzuen arteko Protokoloak lantzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9346; 7. kategoria).
- 4.13. Azaroaren 25eko sensibilizazio-kanpainaren diseinu, finantzaketa eta hedapenean laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 4.14. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

5. EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

- 5.1. 2002. urtetik tratu txarren Protokoloaren hedapenari eta erabilera sistematikoari buruz egindako ebaluazioekin jarraitzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 5.2. Tratu txarren aurrean Protokolo sanitarioa sistematikoki betetzeak duen garrantzi handia gogoraraztea Lehen Arretako eta Osakidetzako/EOZ Ospitale edo ospitale pribatu guztietan (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).

- 5.3. Osasun Zentro eta Ospitaletara zuzendutako materialak berriro argitaratzea, beharrezkoa den kasuetan (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 5.4. Euskal Herriko Erizaintzako IV. Jardunaldietan “Erizainak tratu txarren aurrean” izeneko gaiaren inguruko mahaingurua antolatzea (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 5.5. Estatu-mailan indarkeriari eta lehen arretari buruz argitaratzea aurreikusi den materiala aztertzea eta egokitzea, ondoren, osasun-esparruko langileen eskura jartzeko (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 5.6. Erakundearen arteko Talde Teknikoak adostutako eta Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onetsitako materiala osasun-esparruko langileen artean banatzea eta, hala badagokio, pazienteen artean banatzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 5.7. 2004ko Kanpainaren baitan Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Egunean parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 5.8. Akordioarekin erlazioan hainbat erakundek antolatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar) parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 5.9. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

6. EMAKUNDE/EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

- 6.1. Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak eta Talde Teknikoak egiten duten lana sustatzea eta koordinatzea (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 6.2. *Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko txostena* eguneratzea, Erakundearen arteko Akordioaren esparruan garatu diren jardueri dagokienez eta Jarraipen Batzordeak eta Talde Teknikoak egindako lanari dagokionez (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 6.3. Aldiro-aldiri, Emakundek bere web-orrian irekitako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren* sekzioa eguneratzea eta elikatzea, hartara, Erakundearen arteko Akordioaren esparruan garatu diren jardueri buruzko informazio eguneratua eskaintzeko (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 6.4. 2003ko Erakundearen arteko Akordioa zabaltzeko eta martxan jartzeko neurrien Planaren berariazko ebaluazioa egitea (EEEEPP ekintza: 9312; 4. kategoria).
- 6.5. *Emakumezkoen eta gizonezkoen Berdintasunerako Legearen Aurreproiektuaren zirriborroan* emakumeen aurkako indarkeriari buruzko kapitulu bat barne hartzea;

- besteak beste EAE osoan etxean tratu txarrak jasan dituzten biktimei gutxieneko eskubideak eta baliabideak ziurtatuko zaizkie (EEEEPP ekintza: 1132; 6. kategoria).
- 6.6. Gizarte Zerbitzuetako profesionalengana zuzenduta landuko den etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gidaren lantze-prozesua koordinatzea eta laguntzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 6.7. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen gainean profesionalak prestatzeko materialen lantze-prozesua koordinatzea, esku hartzeko esparru desberdinak kontuan hartuz: sanitarioa, poliziala, judiziala, abokatutza eta gizarte-zerbitzuak (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 6.8. Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako Indarkeriaren aurrean Esku hartzeko Masterra* diseinatzen eta finantzatzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 6.9. Akordioarekin erlazionatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko aholkularitza teknikoa eskaintzea erakunde publikoei eta pribatuei (EEEEPP ekintza: II B.4; 2. kategoria).
- 6.10. Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 6.11. Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaritzak landutako *Zer egin etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean?* triptikoa ingelesa, frantsesa, txinera eta arabierara itzultzea eta herritar atzerritarren artean banatzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 6.12. Datorren azaroaren 25ean aurkeztuko den sentsibilizazio-kanpaina koordinatzea eta kanpainaren finantzaketan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 6.13. Eusko Jaurlaritzako Inmigrazio Zuzendaritzarekin lankidetzan komunikazio-kanpaina bat garatzea, emakumeen aurkako indarkeria asiloa eskatzeko arrazoi legitimotzat hartzeko (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 6.14. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpena koordinatzea eta bertan laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 6.15. Emakunderen diru-laguntzen dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko jardueri lehentasuna emango dieten balorazio-irizpideei garrantzia ematea (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 6.16. Emakumeek jasaten duten Indarkeriaren aurka Euskal Udalerrien Sare bat martxan jartzea (EEEEPP ekintza: 9335; 3. kategoria).
- 6.17. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei Laguntzeko Gizarte Sare bat sortzea (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).

- 6.18. Udaletako agenteekin lan egiteko talde bat koordinatzea, hartara, Erakundeen arteko Akordioa ezartzeko eta, hala badagokio, Erakundeen arteko Akordioa udal-errealitate desberdinetara egokitzeko (EEEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 6.19. Etxeko tratu txarren biktimeentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 6.20. Gizarte-zerbitzuen esparruan babes-agindua ezartzeko protokoloaren lantze-prozesua koordinatzea eta laguntzea (EEEEPP ekintza: 9343; 1. kategoria).
- 6.21. Gizarte-zerbitzuen esparruan datu-bilketa egiteko sistema bateratu bat sortzen laguntzea eta berau koordinatzea (EEEEPP ekintza: 9313; 7. kategoria).

7. ARABAKO FORU ALDUNDIA

- 7.1. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gida bat lantzen eta ezagutzera ematen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 7.2. Arabako Lurralde Historikoan Erakundeen arteko Akordioaren garapenaren jarraipena egiteko lurralde-mahai bat eratzea (EEEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 7.3. *Genero Indarkeriaren arreta integrala, prebentzioa eta desagerraraztea lortzeko egindako esperientzien bilduma eta informazioa* izeneko txostena berriro argitaratzea eta zabaltzea (EEEEPP ekintza: 9335; 3. kategoria).
- 7.4. Genero-indarkeriari erantzuteko eta berau prebenitzeko Zentro integral bat sortzeko proiektua lantzea eta onartzea (EEEEPP ekintza: 9356; 5. kategoria).
- 7.5. Emakumeei arreta psikologikoa eskaintzeko zerbitzua zabaltzea (gero eta handiagoa da eskaria) eta familia-indarkeria jasaten duten pertsonengana zuzendutako arreta espezializatuko zerbitzuak eskaintzen jarraitzea eta horiek garatzea (EEEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 7.6. Abokatuen Elkargoarekin egindako lankidetzak-hitzarmena ebaluatzea —2003an martxan jarritako tratu txarren biktimei laguntza juridikoa emateko Zerbitzu integrala— eta, hala badagokio, hitzarmena luzatzea edo aldaketak egitea (EEEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 7.7. Eusko Jaurlaritzako Justizia Saila, Gasteizko Udala eta Arabako Abokatuen Elkargoaren artean koordinazio-kanalak irekitzea, hartara, letraduak indarkeriaren biktimei eskaintzen dien arreta hobetzeko (EEEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 7.8. Arabako Foru Aldundiko gizarte-zerbitzuen esparrutik etxeko indarkeriaren biktimeen babes-aginduekin erlazioan esku hartzeko protokolo bat lantzea, eta

- beharrezkoak diren koordinazio-kanalak irekitzea (EEEEPP ekintza: 9343; 1. kategoria).
- 7.9. Gizarte Gaietako Sailak 2004rako diru-laguntzak emateko egiten dituen deialdien bitartez genero-indarkeriarekin erlazionatutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak eta prebentzio-jarduerak laguntzea (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 7.10. Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar) parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 7.11. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren diseinu, finantzaketa eta hedapenean parte hartzea, hartara, burutuko diren jarduerak eta finantza-baldintzak aurretiaz ezagutzeko eta jardura guztiak Arabako Foru Aldundiko eskumeneko organoek onar ditzaten (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 7.12. Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gida bat lantzen, finantzatzen eta ezagutzera ematen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 7.13. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 7.14. Gizarte-zerbitzuen esparruan datu-bilketa egiteko sistema bateratu bat sortzen laguntzea eta berau koordinatzea (EEEEPP ekintza: 9313; 7. kategoria).
- 7.15. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpena koordinatzea eta bertan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

8. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- 8.1. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimen arretaren esparruan eta Erakundearen arteko Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako jarduerak diseinatzen eta zabaltzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 8.2. *Emakumeen aurkako indarkeria: arazoak eta bitartekoak* izeneko jardunaldia antolatzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 8.3. Etxeko tratu txarren biktimak diren emakumeei eta beren konturako seme-alabei eskaintzen zaizkien larrialdietako babes-baliabideak bitarteko material eta giza bitarteko gehiagorekin indartzea; eta gaur egungo instalazioei dagokienez,

- barruko eta kanpoko oztopo arkitektonikoak kentzea, hartara, mugikortasun-mailako arazoak dituzten biktimei laguntzeko (EEEEPP ekintza: 9356; 5. kategoria).
- 8.4. *Genero Indarkeriaren Behategia* martxan jartzea Bizkaian, Bizkaiko lurraldean kontsultak egiteko eta bertako informazioa zentralizatzeko organo kolegiatu gisa, hartara, genero-indarkeriaren errealitatea eta bere bilakaera (alderdi orotan) ezagutzeko, eta biktimei eskaintzen zaizkien zerbitzu eta bitartekoen hobekuntza sustatzera zuzendutako proposamenak egiteko (EEEEPP ekintza: 9311; 4. kategoria).
- 8.5. Emakumezkoengana zuzendutako diru-laguntzak arautzen dituen Foru Dekretuko balorazio-irizpide bezala lehentasuna ematea babes-jarduera eta aholkularitza juridikoa zuzenean eskaintzeko jardueri (EEEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 8.6. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako Arreta Psikologikoko Zerbitzuaren ordutegia zabaltzea eta etxeko tratu txar eta sexu-erasoen esparruan espezializatutako gainerako zerbitzuak eskaintzen jarraitzea (EEEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 8.7. Familien Topagunea Programa indartzea (EEEEPP ekintza: 9359; 5. kategoria).
- 8.8. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren finantzaketan laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 8.9. Euskadiko Autonomia Erkidegoko babes-baliabideen baldintzak eta horiek antolatzeke eta funtzionatzeko irizpideak arautzeko araudi bat lantzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9355; 5. kategoria).
- 8.10. Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gida bat lantzen, finantzatzen eta ezagutzera ematen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 8.11. Gizarte-zerbitzuen esparruan datu-bilketa egiteko sistema bateratu bat sortzen laguntzea (EEEEPP ekintza: 9313; 7. Kategoria).
- 8.12. Gizarte-zerbitzuen esparruan babes-agindua ezartzeko protokoloaren lantze-prozesuan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9343; 1. kategoria).
- 8.13. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 8.14. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloaren ezarpena koordinatzea eta laguntzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

9. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- 9.1. Lurralde-mailako larrialdietako zerbitzu bat sortzea egoera larriak bizi dituzten pertsonentzat, hartara, etxeko indarkeria eta sexu-erasoak jasan dituzten biktimei informazioa, laguntza eta akonpainamendua emateko (EEEPP ekintza: 9356; 5. kategoria).
- 9.2. Seme/alaben eta zaintza-eskubidea ez duten gurasoen arteko bisitei buruz hartutako erabaki judizialak betetzeko, Topaguneen (Familia Topaguneak) zerbitzua esleitzeko lizitazioa egitea (EEEPP ekintza: 9359; 5. kategoria).
- 9.3. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen eta Justiziarekiko Lankidetzarako Zuzendaritzak egindako proposamenaren arabera, Abokatuen Elkargoarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenean, etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktimengana berariaz zuzenduko den ofizio-txandaren bitartez laguntza juridikoa eskaintzeko aukera barne hartzea (EEEPP ekintza: 9351; 5. kategoria).
- 9.4. “Gizalde” Planaren baitan, laguntza psikologikoa emateko programak eta sensibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak eta lurralde-mailan etxeko tratu txarren biktimei eskaintzen zaizkien babes-baliabideak aztertzea; eta SOS/DEIAKekin batera, gizarte-zerbitzuen ordutegi arruntetik at gertatzen diren larrialdietan eskaintutako laguntzaren jarraipena egitea (EEEPP ekintza: 9312; 4. kategoria).
- 9.5. Etxeko tratu txarren biktimak izan diren emakumeek gizarte-babeserako zerbitzuak eskuratzeko dituzten aukerak aztertzea: oinarrizko errenta, lanerako programak eta gizarteratzeko programak, eta abar (EEEPP ekintza: 9312; 4. kategoria).
- 9.6. “Gizalde” Planaren bitartez emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan prebentzio- eta sensibilizazio-jarduerak egiten dituzten edo biktimetarako laguntza eta babesa eskaintzen duten elkarteetara zuzendutako diru-laguntzak areagotzea (EEEPP ekintza: 9128; 6. kategoria).
- 9.7. Akordioaren Jarraipen Batzordean lurralde-mailako parte-hartzea egitea; Batzordean parte hartuko dute: Biktimenganako Laguntza Zerbitzua, Orientazio Juridikoko Zerbitzua, Ertzaintza, gizarte-langileak, elkarteak, eta abar (EEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 9.8. Ertzaintzaren, Biktimenganako Laguntza Zerbitzuaren eta Orientazio Juridikoko Zerbitzuaren arteko koordinazio-bilerak sistematizatzea eta udal-zerbitzuekin aldiroko bilerak egitea, hartara, irizpideak bateratzeko, zailtasunak aztertzeko, aldaketak proposatzeko, eta abar (EEEPP ekintza: 9346; 5. kategoria).
- 9.9. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko —Ertzaintza, Abokatuen Elkargoa gizarte-langileak, Biktimenganako Laguntza Zerbitzuak, eta abar— jardueren protokoloen lantze-prozesuan parte hartzea (EEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).

- 9.10. Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-jarduerak garatzea (EEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 9.11. Biktimen arreta, koordinazioa eta segurtasuna hobetzeko udal-mailako zerbitzuetara zuzendutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea; zentzu horretan, kontuan hartuko dira 27/2003 Legeak, Babes Agindua arautzen duena, etxeko indarkeria, sexu-eraso, eta abarrekin lotutako ofizio-txanda espezializatuak dagokienez ekarritako aldaketak (EEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 9.12. Laguntza- eta akonpainamendu-sare bat osatzeko prestakuntza-jarduerak burutzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 9.13. Gizarte-zerbitzuetako profesionalentzako etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurkako jardueren Gida finantzatzen eta ezagutzera ematen laguntzea (EEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 9.14. Azaroaren 25eko sentsibilizazio-kanpainaren diseinu, finantzaketa eta hedapenean parte hartzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 9.15. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 9.16. Datu-bilketa egiteko sistema bateratu bat sortzen laguntzea, hartara, erakundearen arteko kasuen koordinazioa hobetzeko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko (EEEPP ekintza: 9313; 7. kategoria).
- 9.17. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen parte hartzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

10. EUDEL / EUSKAL UDALERRIEN ELKARTEA

- 10.1. EUDEL-en web-orriaren bitartez xede dugun Erakundearen arteko Akordioa eta EUDELEk parte hartzen duen organoek landutako gainerako jarduerak eta protokoloak ezagutzera ematea (EEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 10.2. Udal-langileak prestatzeko espazioak proposatzea, hartara, adostutako ekintzak eta esparruko lege-xedapenen ondorioz sortutakoak martxan jartzeko (EEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 10.3. Xede dugun esparruarekin erlazioan aurkeztutako ekimen legegileak eta gainerako testu arau-emakiek aztertzea eta oharra eta ekarpenak egitea (EEEPP ekintza: 9341; 7. kategoria).
- 10.4. Gizarte-zerbitzuen esparruan babes-agindua ezartzeko protokoloaren lantze-prozesuan parte hartzea (EEEPP ekintza: 9346; 7. kategoria).

- 10.5. Etxeko tratu txarren biktimentzako babes- eta etxebizitza-baliabideak hobetzeko programaren proposamena onartzea eta gauzatzea (EEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 10.6. Datu-bilketa egiteko sistema bateratu bat sortzen laguntzea, hartara, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko eta Autonomia Erkidegoko errealitatea hobeto ezagutzeko (EEEPP ekintza: 9313; 7. kategoria).
- 10.7. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen parte hartzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

11. EUSKAL HERRIKO AUZITEGI NAGUSIKO FISKALTZA

- 11.1. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari erabakitako kautelazko neurriak jakinaraztea, hartara, horiek betetzen direla ziurtatzeko ardura duten polizia-agintaritzek neurri horiek ezagutzeko eta kontrolatzeko (EEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 11.2. Ertzaintzaren lurralde-burutzekin hileru bilerak egitea, hartara, etxeko tratu txarren baitan salatutako kasu larrienen jarraipena egiteko eta, ahal den neurrian, kautelazko neurri zorrotzagoak hartzeko (EEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 11.3. Ahal den neurrian, akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar) parte hartzea (EEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

12. ABOKATUTZAREN EUSKAL KONTSEILUA

- 12.1. Etxeko indarkeria eta sexu-erasoen inguruko prestakuntza-ikastaroak antolatzea Abokatuentzat; nahitaez egin beharko dira ikastaro horiek berariazko ofizio-txanda batean izena emateko, bai eta bertan jarraitzeko ere (EEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria).
- 12.2. Foru Aldundien eta Udalen artean koordinazio-bideak jartzea eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailarekin hasitako lankidetzari jarraipena ematea (EEEPP ekintza: 9353; 7. kategoria).
- 12.3. Elkargo bakoitzaren 24 orduko Zerbitzuaren eta berriki sortu den berariazko ofizio-txandaren publizitatea egitea eta ezagutzera ematea (EEEPP ekintza: 9343; 1. kategoria).

- 12.4. Abokatutzako profesionalei eta Justizia Administrazioarekin erlazionatutako bestelako profesionalei etxeko indarkeriaren eta erasoen inguruko prestakuntza eskaintzea; bestelako erakunderekin lankidetzan landuko dira, gainera, beharrezko materialak (EEEEPP ekintza: 9331; 3. kategoria)
- 12.5. Akordioaren inguruan bestelako erakundek antolatutako prestakuntza-jardueretan eta sentsibilizazio-jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak, eta abar) parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 12.6. Datorren azaroaren 25ean aurkeztuko den sentsibilizazio-kanpaina diseinatzen laguntzea eta finantzaketan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 12.7. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

13. SENDAGILEEN EUSKAL KONTSEILUA

- 13.1. Bizkaiko kolegiatuen artean Erakundeen arteko Akordioa, etxeko tratu txarren aurrean jarraitu beharreko Protokolo Medikua eta horiekin erlazionatutako bestelako agiriak ezagutzera ematea (EEEEPP ekintza: 9332; 1. kategoria).
- 13.2. Datorren azaroaren 25ean aurkeztuko den sentsibilizazio-kanpaina koordinatzea eta kanpainaren finantzaketan parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).
- 13.3. Etxeko tratu txarren eta erasoen ondorioz gertatzen diren heriotzen aurrean erakunde-mailako erantzuna emateko protokoloa ezartzen parte hartzea (EEEEPP ekintza: 9321; 1. kategoria).

Emakunde, 2004ko maiatzaren 14a